

# AHO HIZKUNTZA ARDATZ DUTE HAINBAT EKINTZA

## 1. EUSKARAZ JOLASTU

*“Euskaraz jolastu” jolas saioa*

*Helburuak:*

- Jolasaren bidez euskaraz aritzeko aukera izan
- Jolasekin lotutako esapideak landu
- Jolas egoeretan sortzen diren esapide “askeak” euskaraz lantzeko probestu

2002–2003. ikasturtean Urtxintxa Aisialdi Eskolako begiraleekin “Euskaraz jolastu” izeneko ikastaroa egin genuen. Gure helburua jolasak geuk ikasi eta ondoren ikasleei erakustea zen, geletan erakutsi eta patioetan jolastu eurekin, hiruhilabete bukaera bakoitzean jaialditxo bat egin ikasitako jolasekin.

Bi ikasturtez horrela egin genuen. Astean behin, patioko orduan “Euskaraz jolastu” izeneko jolas saioa egiten genuen eta hiruhilabete bukaeran jaialditxoa.

Hasieran arrakastatsua suertatu bazen ere, beranduago gero eta gutxiago ziren astean behineko saio horretan parte hartu nahi zuten ikasleek. Gehienek nahiago zuten atsedenaldira guztiak libre eduki, zuzendu gabeak, alegia.

Ikasleen nahiari kasu eginez, saioa desagertu zen eta aurten arte ez gara berriro martxan jartzen saiatu. Aurten, berriz, hiru ikasturte pasatu direla kontuan hartuta, berriro saiatuko gara martxan jartzen.

*Erdaraz jolasten dituzten jolasak.*

*Helburuak:*

- Erdarazko esapideen erregistroa egin.
- Erdarazko esapideak euskaratu.

Zenbait jolasetan erdaraz jolasteko ohitura izaten dute ikasleek. Erdaraz ikasi dituzte eta erdaraz jolasten dira. Guk horien erregistroa egiten dugu atsedenaldi garaian eta euskaraz nola ari daitezkeen horrelako jolasetan erakusten diegu geletan. Ondoren, patioan praktikan jartzen dugu.

## **2. JOKO TOPAKETA**

*Helburuak:*

- Bortzirietako haurrak elkarrekin eta elkarren artean euskaraz jolastu
- Jolasekin lotutako esapideak landu
- Jolas hiztegia landu
- Hizkuntza ez formala landu

Bortzirietako bortz herrietako eskola publikoetako ikasleak, ikasturte hasieran, elkartzen gara denak batera euskaraz jolasteko. Jarduera hau duela 6 urte hasi zen eta hagitik arrakastatsua suertatu da.

Hagitik esperientzia aberasgarria da helburu aunitz jorratzen ditugulako:

- ***Euskararen erabilera sustatu:*** jolasek aukera ematen dute jolas-hizkuntzaren alderdi formala (arauak, hiztegia, esapideak...) lantzeko, baita alderdi ez formala jorratzeko ere, jolasen dinamika praktikatzean.
- ***Inguruko herriak ezagutu:*** Bortzirietako herrietako ezaugarriak ezagutzeko aukera izaten dute.

- ***Ikasleen arteko harremanak sustatu:*** Bortz herrietako adin desberdinetako ikasleak nahasten ditugu, euren artean jolastuz harremanak sustatzeko asmoz.
- ***Hezkidetza sustatu:*** baldintza berberetan aritzeko moduko ezaugarriak dituzten jolasak aukeratzen ditugu.

*Antolaketaren ezaugarriak:*

Urtero hiru jolas aukeratzen ditugu talde bakoitzarekin egiteko. Jolas horiek nork bere eskolan praktikatzen ditu ongi ikasi arte.

Era berean, jolas horiekin lotutako esapideak eta hiztegia lantzen dira, bai gelan, bai jolas tokian.

Joko topaketaren egunean talde bakoitzeko ikasleak 9 azpitaldetan banatzen ditugu. Azpitalde bakoitzean maila eta eskola desberdinetako ikasleak nahasten ditugu, elkarreraginean ari daitezen.

Aukeratutako jolasak izaera desberdinetakoak dira; batzuk konpetitiboak eta bertze batzuk kooperatiboak. Eskoletan praktikatzen ditugun bitartean ikasleen gustukoak diren ala ez ikusten dugu. Onartuak ez diren jolasak baztertu eta ordezkatu egiten ditugu, ikasleen nahiak aintzat hartuta.

Urtero aldatzen dugu jolasen bat eta aurreko urteko bertzeren bat errepikatu.

Hautatutako hiru jolasak aldi berean egiten ditugu. Jolas bakoitzean bi talde aritzen dira, batzuetan lehian eta bertze batzuetan lehiarik gabe.

Jolastokia ere urtero aldatzen dugu. Bortz herri direnez, urte bakoitzean bi herritan ospatzen dugu joko topaketa. Herri batean 1., 2. eta 3. mailakoak aritzen dira eta bertzean 4., 5. eta 6.ekoak.

Joko topaketa bukatu ondoren, urtero balorazioa egiten dugu; bai irakasleekin bai ikasleekin eta hortik abiatuta hurrengo urteko topaketa antolatzen dugu.

### 3. BATZARRAK

*Helburuak:*

- Talde handi baten aitzinean jaritasunez hitz egiteko gai izan.
- Ideiak eta proposamenak talde handi baten aitzinean koherentziaz errateko gai izan.
- Ikasleak moderatzaile, idazkari... rola hartzeko gai izan.

Duela sei urte ikastetxeko irakasleon klaustroan Lehen Hezkuntzako ikasleekin batzarrak egiteko ideia sortu zen. Helburua honako hau zen: ikasleen artean sortzen ziren iskanbila edo liskarrak denen artean aztertu eta irtenbide bat bilatzea, alde batetik, eta, bertze aldetik, ikasleek irakasleei egin nahi zizkieten proposamenak egiteko bide bat ematea, hori guztia ahozko hizkuntza lantzeko probestuz.

Tutore bakoitzak bere taldeari ideia hau azaldu eta proposatu zion. Eta ideia errealitate bilakatu zen; Lehen Hezkuntzako ikasleek eta euren irakasleok, hilabeteen behin, batzarra egiten dugu.

6. mailakoek zuzentzen dute Batzarra. Bi dira euren artean, txandaka, banatu beharreko rola: moderatzailea eta idazkariarena.

Moderatzailearen lana nahiko erraza izaten da, bere zeregina hitz-txandak ematea baita.

Idazkariak, ordea, lan gogorragoa du. Berak ematen dio hasiera Batzarrari eta aurreko Batzarraren agiria irakurtzen du. Horrela, orduan hartutako erabakiak bete diren edo egokiak izan ote diren erreparatzen da, aurreko Batzarrean konpondu gabe gelditu ziren gaiak berreskuratzen dira...

Idazkariak gai bakoitzean errandakoaren laburpena egiten du, erabaki bat hartzen laguntzen du eta gaiari bukaera ematen dio. Bera errandakoak idatziz jasotzeaz ere arduratzen da. Bukatzeko, Batzarraren ondorengo agiria prestatu eta kortxoan paratzen du.

Sei urte hauetan zehar aunitz izan dira Batzarretan sortu diren gaiak baina, nolabait laburtzeagatik, honako hauek dira sortutako gehienak laburbiltzen

dituztenak: patioetako arazoak, mota desberdinetako proposamenak, eskolak dituen gabeziei buruzko aipamenak, egindako ekintzen balorazioa eta zenbait arlotan arauak zehaztearen beharra.

Erran bezala, irakasleok ere parte hartzen dugu batzar hauetan. Gure zeregina bikoitza da. Alde batetik, ikasleek egiten dizkiguten galdera, eskaera, kexei erantzuna ematen saiatzen gara. Bertze alde batetik, idazkariari laguntzea batzarrak aurrera egiten ez duela ikusten dugunean.

Izan ere, batzar bakoitza desberdina izaten da. Batzuk hagitz arin eta eraginkorrak izaten dira. Bertze batzuk, berriz, astun eta amaigabeak, erabaki bat hartzeko hamaika buelta eman behar direlarik. Baina denak aberasgarri eta hezigarriak direla uste dugu, beraien bidez hagitz inportanteak diren baloreak lantzen baititugu. Gure ikasleak, arian-arian, ikasten ari dira euren artean hitz egiten, elkarri entzuten, bertzearen tokian jartzen, erabakiak hartzen, arazoak konpontzen, talde handi baten aitzinean hitz egiten, idazkari eta moderatzaile rola betetzen... eta hori guztiori euskaraz ikasten ari dira. Dударik ez dugu, etorkizunean horrelako zeregin bat betetzea edo talde handi batean hitz egiteko garaia ailegatzen bazaie primerako esperientzia eta tresnak bereganatzen ari direla.

#### **4. XORROXIN IRRATIA**

*Helburuak:*

- Elkarrizketak, berriak, txisteak... ahoz landu.
- Irrati saio batek dituen ezaugarriak ezagutu eta praktikan jarri.
- Zuzeneko emanaldiak eman.

Urtero Baztan Bidasoa zonaldeko Xorroxin Irratiak ekipo ibiltari bat eskaintzen digu zonaldeko eskolei, guk bertan irratia lan dezagun.

Astebetetz izaten dugu geure irratia programak eskaintzeko aukera eta herriko edozeinek bere etxetik entzuten ahal du.

Guk ekintza honetan beti parte hartu dugu, batez ere, honek aho hizkuntza lantzeko ematen digun aukeragatik.

Aste horretan zehar eskolako gela guztiek euren programazioa prestatzen dute:

- § Haur Hezkuntzakoek ordu erdiko saiotxoak egin ohi dute.
- § Lehen ziklokoek ordubete edo ordu eta erdiko saioa.
- § Bigarren ziklokoek, berriz, bi ordu inguruko saioa.
- § Hirugarren ziklokoak dira zama handiena hartzen dutenak, egunero, aste horretan zehar, ordu eta erdiko saioa eskainiz.

Saio hauetan honelako atalak eskaintzen ohi dira:

- Aurkezpena.
- Berriak, bai eguneko titularrak  
bai alde zuzenetik gelan  
bildutakoak.
- Ipuinak.
- Erreportajeak.
- Elkarriketak.
- Errezetak.
- Bitxikeriak.
- Txantxalbistak.
- Asmakizunak.
- Txistak.
- Erreportajei buruzko  
galderak.

Saioak hizkuntza saioetan prestatzen dira gelan. Irakaslearen laguntzarekin talde bakoitzak bere programazioa antolatzen du, bakoitzak zer erranen duen zehazten dute eta batez ere asko entseiatzen dute.

Urteetan zehar gure ikasleak izugarri trebatu direla nabaritu dugu. Bai garapen pertsonalean, haur hezkuntzatik hirugarren ziklora, bai emaitza orokorrean, urteetan zehar, hobekuntza nabarmena izan da eta.

Ikasleak trebatzen dira bertzeen aitzinean solas egiten eta kontuan hartu behar dituzten aspektuetan: ongi ahoskatzen, erritmo egokia erabiltzen, egiturak zaintzen, hiztegi aberatsa erabiltzen...

Aitortu beharra dago bat-batekotasunari espazio gutxi uzten diogula. Gehien-gehiena ongi baino hobeki alde zuzenetik prestatua eramaten dugula. Hirugarren ziklora arte ez dute ezertxo ere bat-batean sortzen eta hirugarren zikloan ere ez gehiegi. Hau izaten da urtero balorapenetan aipatzen dugun hobekuntzetako bat baina oso zaila egiten zaigu hori aldatzea. Azken finean, irakasleok kalitatea zaindu nahi dugu eta ez dugu gehiegi arriskatu nahi.

Hala eta guztiz ere, oso baliagarria da ekintza hau aho hizkuntza lantzeko.

Aste horretan, bestalde, emititzen ari ez diren ikasleek bertzeen programak ahalik gehien entzun ditzaten antolatzen ditugu klaseak. Gainera gehienetan lehiaketaren bat izaten da eta haurrei izugarri gustatzen zaie hauetan parte hartzea.

## **5. ANTZERKIA ETA ESKOLA: MUGAZ GAIN, ANTZERKI TOPAKETA**

### *Helburuak:*

- Mugaz gain: urtero Beran egiten den Mugaz Gain antzerki ikuskizunean parte hartu, obrak antzeztuz eta ikusle gisa.
- Ahozko adierazpena landu: arnasketa, intonazioa, erritmoa, deklamazioa, bat-batekotasuna, memoria, inprobisazioa...

Antzerkia eta Eskola izeneko proiektua duela hamar-hamaika urte sortu zen herrian. Geroztik, udalak eskola bakoitzari antzerki monitore bat finantzatzen dio ikasturtero, urritik maiatza bitarte, astero bi antzerki saio emateko. Ikastetxe bakoitzak erabakitzen du baliabide hau nola erabili.

Gure eskolan hirugarren ziklokoekin hasi ginen. Gaur egun, lehen ziklora ere zabaldu dugu ekintza hau. Zentroko irakasle batek, antzerki monitore batekin lan egin ondoren, berak bere gain bertze talde bat hartzera animatu zelako.

Antzerkigintza lantzeko Kultur etxeko aretora mugitzen gara. Eskenatoki batean lan egiteak eskaintzen duen aukerengatik: espazioa, argiak, erresonantzia...

Antzerkia lantzerakoan ikasleek, gorputz adierazpena lantzeaz gain, ahozko adierazpena ere lantzen dute: arnasketa, intonazioa, erritmoa, deklamazioa, bat-batekotasuna, memoria, inprobisazioa...

Ez derrigorrez baina, normalean, kurtso bukaerako antzezlan bat prestatzen dute eta publikoaren aitzinean, kultur etxean bertan, eskaintzen da.

Antzerkia eta Eskolak maiatza aldean Mugaz-gain izeneko antzerki jaialdi bat antolatzen du. Honetan talde bakoitzak bere lanaren emaitza erakusteko aukera du, nahi izanez gero.

Emanaldi hauek beste eskoletako ikasleek ikusten dituzte. Eta arratsaldez, gurasoentzat “ateak zabalik” deitutako bigarren emanaldia egiten da.

Ikasleek ikusle gisa ere asko ikasi dute. Urteetan zehar balorapen guztietan hori aipatu dugu. Antzezlanarekiko errespetua eta interesa gero eta handiagoak dira. Ikusleak ere formatzen ari gara.

Hau guztia, jakina, euskaraz egiten da. Horrela ere euskaraz bizitzeko eta gozatzeko beste era bat jorratzen ari gara.

## 6. AKATSAK ZUZENDUZ

*Helburuak:*

- “Akatsak” identifikatu , zerrendatu eta jatorria aztertu
- Egunero ikasgelan egiten diren jardueretatik lan daitezkeen “akatsak” aztertu
- Ikasleak, euskararen ikaste prozesuan, gazteleraren eraginez egiten dituzten “akatsak” jabetu
- Akats horiekiko esku hartzeak aztertu

Ikasleek egiten dituzten akats eta erdarakadak zuzentzeko zenbait ekimen jarri ditugu martxan gure ikastetxean.

Alde batetik, akats usuenen inbentarioa egin genuen.

Ondoren, akats horien berri eman genien ikasleei, eurak akats horietaz jabe zitezten.

Klaustroan erabakita daukagu hamabostean behin akats edo erdarakada horietako bat lantzea.

Horretarako, akatsa aukeratu, geletan landu eta pasabideetan kartelak jartzen ditugu, modu zuzena eta okerra zein den adieraziz.